

IKASLEEN TXOKOA 104. ZENBAKIA

Aratz ikastola



DBH 1 eta 2



DBH 3

Ikaskuntza zerbitzu proiektuak (i+zs) Aratz ikastolan

Gure Ikastolan Ikaskuntza eta zerbitzua bateratzen dituzten proiektuak lantzen ditugu. Metodologia honekin kurtsoan zehar ikasi beharreko gaiak lantzen ditugu eta aldi berean gure ingurukoei zerbitzu bat ematen diegu.

Proiektu mota hauek aurrera eramaterakoan, gai ezberdinak ikasteaz gain, inguruan zer behar dauden konturatzen gara eta hauei buruz hausnartzeko aukera ematen digu. Bestalde, gure gizartea hobetzeko helburuarekin aktiboki parte hartzen dugu.

Aratz Ikastolan I+ZS proiektuak egiten ditugu LHtik hasi eta DBHraino.



DBH 1: Odol emaleak

DBH 1. mailakoek urtero bezala odol emaleen APS-a egin dugu.

Aurten martxoan eman genion hasiera proiektuari. Hasiera batean Biologiako saioretan zirkulazio aparatua eta odolaren gaiakin hasi ginen, Euskara ikasgaian, berriz, galdera egokiak egiten ikasi genuen eta Gizarte ikasgaian gaur egungo Euskal Herrian dagoen odol emaleen egoera aztertu genuen.

Behin gaitasun guzti horiek jasota elkarrizketa desberdinei ekin genien. Amaia Irazusta erizainaren profesionaltasuna, odol emale desberdinen esperientzia eta Gipuzkoako odol emaleen elkarteko lehendakariaren ibilbidea eredu hartu genuen estrakzioari aurre egiteko.

Martxoaren 27an ilusio handiz Ikastolan bertan estrakzioa egin genuen, non ikasleek odol emaleei harrera egin genien, bertso bat bota eta hauen zainketa aurrera eramanez. Urtero bezala proiektuaren

balorazioa egin genuen eragile desberdinei galdeketa bat bidaliz, honekin batera hobekuntzak planteatzeko datorren ikasturterako. Jarraian elkarrizketetan egin genizkien balorazio galderak azalduko dira.

AMAIA IRAZUSTA Ikasleei formakuntza eman zien erizaina

Zergatik pisatu behar dute 50kg baina gehiago odola emateko?

Pisu hori baino gutxiago dutenek odol kantitate gutxiago dutelako eta odol unitate bat eman ahal izateko, kendu beharko litzatekeen odol kantitatea proportzionalki gehiegi izango litzatekeelako

Zergatik batzuk ezin dute odola eman, hau da, ze ezaugarri

bete behar dira odola emateko?

Aurretik gaixotasunen bat, ebakuntza, tratamendu farmakologikoa... izan dutelako edo momentuan dutelako. Honek bi arrazoi izan ditzake, emalearentzat arriskutsua izatea, bere oinarriko baldintzengatik edo odola jasotzen duenarentzat, odolaren ezaugarriengatik kaltegarria izan daitekeelako.

Zergatik ezin du ume batek odola eman?

Adin txikikoak direlako, bozkatu ezin duten bezala

Zein froga pasa behar dira odola eman ahal izateko?

Pisua, tentsio arteriala eta hemoglobina (hatzeko odol tantaren bitartez) neurtu behar dira.

Zergatik egon behar da etzanda odola ateratzen?

Odola ematean, bolumen galera bat dago eta honek tentsio arterial jaitsiera bat sor dezake, horregatik eta ez zorabiatzeko pertsona etzanda edo erdi-eserita jarri behar da. Honela odola garunera iritsiko dela ziurtatzen da.

Zer iruditzen zaizu Ikastola batek horrelako proiektuak egitea?

Zoragarria!!!! Jasotzen dituzten ezaguera guztiaz gain, oso interesgarria da gizartearentzat hain garrantzitsua den zeregin baten inguruko sentsibilizazioa egiten delako.

HARITZ APAOLAZA Odola ematera gerturatu zen pertsona

Zure lehen aldia da odola ematen?
Bai.

Nola sentitu zara jakitean odol horrekin gutxienez hiru bizi salbatu dituzula?
Poztu egin nintzen.

Zerk erakarri zintuen odol estrakzioa?
Semeak bultzatzea egin ninduen odola ematera

Nola sentitu zara odola eman ondoren?
Primeran, jakinda keinu horrekin pertsonak lagundu ditzake-dala.

Elikagai gehiago behar ziren indarra errekuperatzeko edo nahikoa izan zen? Elikagai espezifikoren bat faltan izan zenuen? Zaintza espezifikoren bat?



Sentsibilizazioa herrian

Zaintza nahiko eta soberakoa izan zen, oso ondo zainduta sentitu nintzen.

Harrera ona egin al zizuten bertako erizain, irakasle eta DBH1. mailako ikasleek?

Harrera eta zaintza primerakoa izan zen guztien artean eskaini zigutena.

Berrito errepikatuko zenuke odola ematearen esperientzia hau?

Noski, errepikatuko nuke.

HARANE LOPEZ DE LUZURIAGA Aratz Ikastolako ikaslea

Sentsazio ona izan duzu egin duzun lanarekin?

Bai, izan ere, asko gustatu zait herri mailan jendea proiektu honen parte izateko sentsibilizatzea.

Proiektu honi esker, odol-emalea izatea gustatuko litzaizuke?

Bai. Proiektu honen bidez konturatu naiz, jendeak odol premia handia duela eta nik aulki batean eseri eta keinu atsegin hau eginez gutxienez hiru pertsona salba ditzakedala, emorragia, istipu edo ebakuntzetan galdu-tako odola berreskura dezaten.

Zer ikasi duzu proiektu honetatik?

Jendeak zertarako ematen duen odola eta zertarako balio duen

pertsona horrek emandako odol poltsa horrek.

Pozik sentitu zara proiektu hau aurrera eramatean? Eta bukatutakoan, egon ziren erantzunekin?

Bai oso gustura geratu ginen zeren eta iruditu zitzaigun, herri mailan jendea sentsibilizatze-ko kanpaina oso ondo atera zitzaigula, kartel eta triptiko guztiak agortu baizitzaizkigun. Horretaz gain, kontuan hartutako datua iruditzen zait, ikastetxe batek antolatutako odol estrakzioa izanda, 28 pertsona inguru gerturatzea bertara. Askok poztu ginen emaitzarekin.

Gustatu zitzaizun lana egitea, jendeari lagunduko zenuela jakinik? Horrek lana gustorago egitea eragin zuen? Ala ez?

Gusturago egia esan ez dakit, baina, badakit gehiago motibatzen ninduela helburua (jendea odola emateko sentsibilizatzea) gero eta gertuago geneukala jakiteak eta herrian zehar ibili ahala ezagunen bat gerturatu eta esatea oso ideia ona iruditzen zitzaizela gure proiektua.

Bizitza lekziorenbat ikasi al duzu proiektu honetan?

Ez dakit bizi lekzio bat bezala hartu, baina ikasi dudana izan da merezi duela odola emateak. Zuk edo zure inguruko baten batek inoiz odola behar izanez gero, eskuragarri eduki dezaten eta ez duela inporta nori lagundu diozun. Axola duena, odola behar duen pertsona bati lagundu diozunaren pentsamendu positiboarekin harro sentitzea da.



Amaia estrakzioa nola egiten den erakusten

DBH 2: Gailu digitalen erabilera

Landu dugun proiektuan gailu digitalak nola erabiltzen ditugun hausnartzen saiatu gara. Txikitatik ohituta gaude erabiltzen ordenagailua, tableta edo mugikorra eta orokorrean ez dugu gehiegi pentsatu nola erabiltzen ditugun. Alde bategatik asko errazten digute bizitza lagunekin komunikatzeko edo eskolako lanak egiteko garaian, baina bestalde, arriskuak ere badituzte eta garrantzitsua da hauek ere gogoan izatea.

Gailuek ematen dizkiguten gauza positibo eta negatiboak landu ditugu eta ondorengo argazkian ikus ditzakezue:



Proiektuan zehar ikasi dugun guztia LH6ko ikaskideei zabaltea oso interesgarria iruditu zaigu beraiek ere modu egokiago batean erabili ahal izateko. Horretarako taldeka tailer batzuk antolatu ditugu, hauek egin ahala beraiek ere hausnartu zezaten nolako ohiturak dituzten gai honi dagokionez. Bukaeran konpromezu bat eskatu diegu ikasle bakoitzari, beraien erabileran zerbait aldatu dezaten gailu digitalen erabilera hobeto egiteko helburuarekin.

Tailerraren izena + helburua	Argazkiak	Funtzionamendua	Hobekuntza + Proposamenak
NOLA ERABILTZEN DUT TEKNOLOGIA? Beraien egunerokoan teknologia nola eta noiz erabiltzen zuten kontziente izatea zen helburua, ondoren teknologiaren erabilera egokia azaltzeko.		<ol style="list-style-type: none"> 1.- Lehenengo galdetegi bat egin genien, teknologia nola erabiltzen zuten jakiteko. 2.- Ondoren egoera batzuk jarri genizkien beraien teknologiarekiko lotura nolakoa zen ikusteko. 	Egoera gehiago sortuko genituzke tailerra erakargarriagoa izateko.
ARGAZKI-SOZIALAK Jakinarazi nahi genien zein argazki BAI eta zein EZ erabili beraien sare sozialetarako.		<ol style="list-style-type: none"> 1- Irudi onak eta txarrak erakutsi genizkien. 2- Zer iruditzen zitzaizkien hausnartu arazten genien, eta beren sare sozialetara igoko luketen ala ez erabaki behar zuten. 3- Egokia ez den bat igoko luketela esanez gero ondorioei buruz hitz egin genuen ulertarazteko zer gerta daitekeen. 	<ol style="list-style-type: none"> 1- Entreenigarriagoa egitea, beraiek parte gehiago hartuaz. 2- Adibide gehiago sortu. 3-Materiala koloretsuagoa eta originalagoa sortu.
GAILU DIGITALAK ERABILTZEN BADA KIZU? Gailu digitalak zein modutan erabiltzen ditugun konturatzea zen helburua.		<ol style="list-style-type: none"> 1.- Karta joko bat asmatu genuen eta bakoitzean egoera bat planteatzen genien. Egoeraren aurrean nola jokatu erantzun desberdinak zituzten. 2.- Aukeratzeko zutenaren aukeraren arabera, puntuazio gehiago edo gutxiago lortzen zuten. Erabilera egokia baldin bazen puntuak ematen genituen eta txarra bazen kendu. 3.- Puntu gehien lortzen zituenak irabazten zuten. 	Adibide gehiago jarriko genituzke, agian zailagoak.
ZAREN BEZALAKOAGERTU. Gure helburua sare sozialen beste aldean pertsona bat dagoela ohartaraztea zen eta komentario batzuk min egin dezaketela konturatzea.		<ol style="list-style-type: none"> 1.- Guk argazki bat erakusten genien eta beraiek emogi eta komentario bat aukeratu behar zuten argazki hau sare sozialetan ikusiz gero egingo luketena. 2.- Ondoren guk igo genuela argazki hori eta komentarioa ikustean nola sentituko ginaten esaten genien. 	Argazki, komentario eta emogi gehiago jarriko genituzke.
MUGIKORRAREN TAILERRA Gure helburua izan zen LH6ko ikasleekin batera hausnarketa bat egitea ARATZ ikastolako ikasleen artean egindako galdetegiaren emaitzetan oinarrituta.		<ol style="list-style-type: none"> 1 Ikastolako DBH eta LH5 eta 6ko ikasleei egindako galdeketa emaitzak aurkeztu genizkien. Jasotako emaitzekin hausnartu egin genuen LHko taldearekin. Mugikorraren erabilpen denbora, erabiltzeko sentitzen den beharra... Azkenik konpromezu bat eskatu genion ikasle bakoitzari gailu digitalak era egokiago batean erabiltzeko. 	<ol style="list-style-type: none"> 1 Galdetegiko galderak gure helburua lortzeko hobeto bideratuko genituzke. 2 Ikasleentzako dibertigarriagoa izateko parte gehiago hartu dezaketen tailer bat sortuko dugu.

DBH 3: Murriztu-berrerabili-birziklatu!

DBH 3. mailako ikasleak “Murriztu, berrerabili, birziklatu!” izeneko proiektua burutu dugu.

Ohartu gara zabor asko sortzen dugula eta hori oso kaltegarria dela ingurumenarentzat. Gehiegizko hondakin horiek gutxitzeko hiru ekintza egin ditzakegula ikasi dugu: gure kontsumoa murriztu (produktu gutxiago erosituz), erositakoa ahal den heinean berrerabili, eta jada erabilpen gehiago ez duena behar bezala birziklatu.

Horretan oinarrituz, Lehen Hezkuntzako ikasleak gai honen inguruan sentibilizatzeko proiektua egin dugu. Gure helburua hau zen: ikasleak ohartzeko hondakin gehiegi sortzen dugula eta hau oso kaltegarria dela gure planetarentzat. Gizakiok sortzen dugun zaborra gehiegizkoa da eta, ikaskuntza eta zerbitzua proiektu honen bidez, gure helburua zen ikasleak ohartzeko gure esku dagoela horri aurre egitea, murriztuz, berrerabiliz eta birziklatuz.

Lehen Hezkuntzako maila guztietara zuzendutako proiektua izan da. Horretarako, gure klasea hiru taldetan bereizi genuen eta, horrela, talde bakoitzak LHko bi mailarekin landu zuen gaia saio baten bidez: 1. taldeak LH 1. eta 2. mailakoekin, 2. taldeak LH 3. eta 4. mailakoekin, eta 3. taldeak LH 5. eta 6. mailakoekin. Talde bakoitzak maila desberdinekin lan egin zuenez, saioa modu desberdinetara antolatua genuen. Jarraian azalduko dizkizuegu talde bakoitzak prestatutako saioak.

LH 1. ETA 2. MAILAK

Gure taldeak LHko txikienekin egin zuen lan. Horregatik, antzerki txiki batzuk prestatu genituen eta, ondoren, jolas moduan behar bezala birziklatzen erakutsi genien.

Denera hiru antzerki labur egin genituen. Lehenengoan, bi lagun ziren protagonista: lagun bata erosketak egitera zihoan plastikozko poltsarekin; orduan, beste lagunak, telazko poltsa bat eman zion, poltsa berrerabil bezan.

Bigarren antzerkian bi lagunen arteko elkarriketa bat antzeztu genuen. Batek opari bat egin behar zuen baina ez zekien zer oparitu eta, orduan, lagunak kamiseta bat oparitzeko aholkatzen zion, hau hainbatetan berrerabili eta birziklatu daitekeelako. Gainera, oparia biltzeko berrerabilitako edota birziklatutako papera erabiltzea gomendatzen zion.

Hirugarren antzerkian, ez birziklatzearen ondorioak azaldu genituen. Protagonista inoiz birziklatzen ez zuen umea zen; honek, plastikoagatik hiltzen diren animalien inguruko erreportaje bat ikusi zuen telebistan, eta larrituta, birziklatzen hastea erabaki zuen.

Antzeztu eta gero, jolas batzuk egin genituen. Guk hondakin desberdinak erakutsi genizkien ikasleei eta haiek esan behar zuten nora bota, jolas bidez ikasiz. Adibidez: plastikozko botila bat non botatzen zen galdetu genien eta esan behar zuten ea zaborrontzi horira, berdera, urdinera... bota.

Haurrei behar bezala birziklatzen lagundu genien. Bazezkiten zerbait gaiaren inguruan, baina zerbait berria ikasi zutela uste dugu, batez ere, ez birziklatzeak dituen ondorio larriak zein diren.

Jolasekin asko ikasi dutela uste dugu, eta ziur gaude euren pentsamoldea aldatu egin dela.

Oso pozik joan ziren!



LH 3. ETA 4. MAILAK

Hirugarren eta laugarren mailako ikasleei zuzendutako saioa egin genuen. Horretarako, aurkezpen bat prestatu genuen, gure azalpenak irudien eta argazkien bidez laguntzeko.

Hasieran, guk sortutako hondakinek planetan duten eragin kaltegarria azaldu genuen, eta hori erakusten duten argazkiak erakutsi genituen, adibidez, zaborrez betetako itsasoak.

Ondoren, aholku batzuk eman genizkien, gutako bakoitzak zer egin dezakeen hondakin gutxiago sortzeko:

1. Produktu gutxiago erosi, kontsumoa murriztu.
2. Gauzak berrerabili, bigarren eskuko gauzak erosiz edo beste zerbaitetarako erabiliz.
3. Berrerabili ezin denean, behar bezala birziklatu.

Amaitzeko, diapositiba batzuetan zabor mota desberdinak erakutsi genizkien eta, taldeka, hondakin bakoitza zein zaborretara bota zehaztu behar zuten.



Jolasak

Gure ustez, saioa oso ongi joan zen. Ikasleak asko larritu ziren ingurumenean dauden kalteak ikustean eta birziklatzea oso garrantzitsua zela ikusi zuten. Ongi ulertu zituzten ideiak eta oso ongi hartu zuten parte!

LH 5. ETA 6. MAILAK

Gure helburua LHko 5. eta 6. mailako ikasleak kontzientziatzea edota sentibilizatzea zen, guk sortzen ditugun hondakinek planetan duten eragin kal-

tegarriak ikusi ditzaten.

Hori guztia azaltzeko aurkezpen txiki bat prestatu genuen. Aurkezpen horren bidez, guk aurretik klasean ikasi genuena haiei transmititu nahi genien. Aurkezpena azaldu ondoren, bideo bat ikusi genuen, egunero sortzen dugun kutsadura eta munduaren etorkizuna zein izan daitekeen ikusteko.

Amaitzeko, aurkezpenean azaldukoaren eta bideoan ikusitakoaren inguruan eztabaidatu genuen. LHko ikasleen parte hartzea handia izan zen, eta larrituta azaldu ziren egoeraren inguruan. Horri aurre egiteko egin dezaketenaz hitz egin genuen amaieran:

*Kontsumoa murriztu
Berrerabili
Birziklatu*

Oso gustura aritu gara proiektu hau egiten. Ikasleek arreta handia jarri zuten aurkezpenean. Uste dugu ongi egongo zela saio luzeagoa ematea; izan ere, ikasleak gehiago hitz egiteko gogoarekin gelditu ziren, motz gelditu zitzaigun saioa!



Lehenengo antzerkia

